



PR®-BI 174

Nabarniz

Mendi-ibilbidea Illuntzarreko larreetan eta Nabarnizko auzoetan barrena; baserriak oraindik bere esentziari eusten dio bertan, eta Arrolako *Oppidurna* ikusteko aukera ere izango dugu.

Urdaibaiko Biosferako Erreserbaren benetako talaia da Illuntzar mendia. Tontorraren aldameneko larreetatik gure eskualdeko askotariko paisaia aberatsa ikus dezakegu, besteak beste mendiko larreak, Ereño, Nabarniz eta Aulesti auzoen arteko goi-bailareta landazabal atlantikoa, Ereñozar mendiko artadi kantauriarra, Omako harana, Muruetako, Busturiako eta Gautegiz-Arteagako padurak eta Okaren arroa mugatzen duten mendiak, Mendiko bidezidor horretatik Illuntzarreko tontorrera iritsi gaitzke Elexaldeko erdigunetik abiatuta. Merka auzotik pista zabal bat abiatzen da, eta polki-polki egiten du gora tontorraren oinetaraino, gure lurraldeko ikuspegi ederrenetako batez gozatzeko parada. Tontorretik behera, iparralderantz, mendilarrak aurkituko ditugu, behi, ardi eta zaldien bazkalekua. Leize ugari daude eremu horretan, 330 m-ko sakonera duen Ineritze adibidez.

illuntzar, urdaibaiko begiratokia

10,5 Km - 3 ordu 30'

Fitxa teknikoa

- Ibilbidearen hasiera/amalera: Elexalde-Nabarniz
- Ibilbidearen luzera: 10,5 km
- Gehienezko malda: 420 m
- Denbora (g.g.b.): 3 ordu 30'

Gomendioak

- Haineko norantza hau gomendatzen da: Elexalde-Nabarniz-Merka-Illuntzar-Airo-Ikuzurieta-Intraurraga-Urribari-Elexalde
- Beste abiapuntu posible batzuk: Ikuzurieta eta Urribari
- Gogoa eta hiru mendi-ibilbidea dela, eta bertan inportantziak muturakoa direla. Auzoetan arropa eta oinarrizko egokiak, eta arrosan behar dituzun ura.

Ibilbidearen profila:



MIDE

Bideak eskatzen duten maila teknikoa eta fisikoa neurtzen duen metodoa da, leik, 5era, bakienetik handienera doazen zailtasun baliokin.

- 1 Ingurunea
- 2 Desplazamendua
- 2 Ibilbidea
- 3 Esfortzua

Gogoratu

- Ono prestatu biangoa
- Utzi baketan inguruko animalak
- Gogoratu prismatikoa hartzea
- Ez hartu lorerik
- Utzi atakak aurkitu dituzun moduan
- Ez bota zaborrik

Ibilbideak Airo eremuantiz egiten du aurrera, eta baserri itzel baten hondarrak aurkituko ditugu bertan, pagodi txiki eta eder baten ondoan.

Pista zabal batean barrena Kurtziaganako bidegurutzera hurbilduko gara, Intraurraga eta Ikuzurieta auzoetara joisten zen galtzada zahararen abiopuntua. Bertako baserrietan altxor etnografiko ugari gorde dira.

Baserri, baratze, larre eta zuhaitz txikien artean ibilaldi ederra eginez Urribari auzora iritsiko gara, eta bertan, San Migel ermitaren ondok pasatuz, ibilaldia Elexaldera igotzen da berriz.



informazioa

Turismo bulegoak:

- Gernika-Lumo: 94 625 58 92
- Bermeo: 94 617 91 54
- Mundaka: 94 617 72 01

Garraio publikoa:

- Bizkaibus: 946 125 555
- Euskotren: 902 54 32 70



Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patroiatua Madariaga dorretxea 94 403 23 60



Amaga eta Zabalintzaurmeta baserria



Larre menditarak

airoko pagodia

Airo baserriaren ondoan pago matzen baso biki bat gorde da, ondare etnobotanikoaren altxor preziatuenetako bat. Zuraren aprobetxamenduari estu lotutako baso horiek azolera handia izan zuten garai batean, baina bakanak dira gaur egun.



goi-bailaretan

Baserrian lotutako elementu ugari gorde ditu Nabarnizek. Garaiak, egurtegiak, lastategiak, ferratzeko egiturak, karobiak, ikuztegiak, iturriak, bide enkabatuak eta ermitak aurkituko dituzu bidean, goi haranetako baserrien egunerokotasunaren adierazgarri bikainak.



112 SOS DELAK




Homologatutako ibilbideak. Simbologia

PR[®]

Zidorraren jarraipena Nafarkeak aldatuta Okerreko norabidea

Mendiko ibilbide laburra (PR)

Interesguneetara desbiderapenak



arrolako oppiduma

Gure historia ezagutzeko funtsezko aztarnategia da Arrola. Burdin Aroko gotorlekua da, eta handitasunagatik, zabalatasunagatik eta kontserbazio-mailagatik nabarmentzen da. Ekialdeko Kantauriko ikusgarrienetako bat izanik, K.a. IV. mendetik K.o. I. mendera bitarte kastro handi edo herrixka gotortu hau okupatuta egon zen.



Ikurrak

	Abiapuntua		Egurtegi-lasterategia
	Aparkalekua		Garaia
	Eliza		Ferratokia
	Ermita		Latsamia
	Gailurra		Gaitzada
	Ikuspegi panoramikoa		Koba
	Interes naturala		Garrara publikoa
	Iturria		Taberna-jatebrea